

Komunikazioa eta ongizatea dementzia duten pertsonengan







BERRIKUSPEN PARTE-
HARTZAILERA KO FITXA



matia

1. FUNTSEZKO EKINTZA. NARRIADURA KOGNITIBOAREKIKO ETA DEMENTZIA DUTEN PERTSONEKIKO SINESMEN ETA JARREREI BURUZKO GOGOETA

Gogora dezagun:

-  Narriadura kognitiboak ez ditu pertsonaren bizitza- eta garapen-aukera guztiak geldiarazi behar. Zaintza-ingurune egoki batek aukerak sor ditzake pertsonak bizitza atseginaz gozatzen jarrai dezan eta bere bizimoduari eta nortasunari eusten jarrai dezan.
-  Dementzia duten pertsonak ez dituzte behar fisikoak bakarrik. Gainerako pertsonak bezala, premia psikosozialak ere badituzte (maitasuna, afektua, harremana, ekarpena, entzutea, etab.).
-  Osagai kognitiboa ez da gizakia definitzen duen gauza bakarra.
-  Harreman-ingurunea funtsezkoa da dementzia duen pertsonatzat hartzeko eta tratatzeko moduan. Pertsonatzat hartzea, neurri handi batean, besteen atribuzioen araberakoa da.
-  Dementzia duten pertsonekin komunikazioa erraztu dezaketen teknikak eta estrategiak daude. Ingurune ulergarria izatea eta erraztasunak emateko teknikak eta trebetasunak erabiltzea ezinbesteko elementuak dira.
-  Dementzia aurreratua duten pertsonak beren nortasunari eusten diote, neurri batean.

Zentroak ibilbide honetan aurrera egiteko duen momentua

Nola ikusten dugu geure burua dementzia duten pertsonetikiko tratuan eta komunikazioan? Nola ikusten dugu, zer pentsatzen dugu narriadura kognitiboaz eta dementzia duten pertsonez? Zer sinesmen eta jarrera landu beharko genituzke pertsona horiekiko arreta eta komunikazioa hobetzeko?

2. FUNTSEZKO EKINTZA. KOMUNIKAZIOA ERRAZTEA

Jardunbide egokien deskribatzaileak

Betetzen da

1. Inoiz edo ia inoiz
2. Batzuetan edo parte batean
3. Normalean

- Dementzia duten pertsonak orientatuta egon daitezen eta une horretan inguruan gertatzen dena uler dezaten ahalegintzen gara.

1 2 3

- Dementzia duten pertsonen arreta erakartzeko eta mantentzeko estrategiak ezagutzen eta aplikatzen ditugu (ikusmen-kontaktu jarraitua, aurrez aurre eta altuera berean kokatzea, distraktore fisikoak saihestea).

1 2 3

- Badakigu gure hitzezko hizkuntza sinplifikatzen (horregatik infantilizatu gabe).

1 2 3

- Badakigu gure hitzik gabeko komunikazioa egokitzen, lasaitasuna adieraziz gure aurpegi-adierazpenaren, gorputz-erritmoaren, jarreraren, keinuen, ahots-tonuaren eta abarren bidez.

1 2 3

- Ikusizko euskarriak eta objektu esanguratsuak (argazkiak, tresna pertsonalak, etab.) erabiltzen ditugu dementzia duten pertsonekin komunikazioa errazteko.

1 2 3

- Musika esanguratsua modu pertsonalizatuan erabiltzen dugu dementzia aurreratua duten pertsonekin komunikazioa errazteko.

1 2 3

- Badakigu kontrako komunikazio-moduak ezagutzen eta saihesten (behartu, eten, agindu, inposatu, azkar ibili, baimenik gabe utzi, barregarri utzi, liskartu, iseka egin, mehatxatu, eta abar).

1 2 3

- Badakigu interakzio bultzatzaileak nahita onartzen eta erabiltzen (baliozkotzen, babesten, aitortzen, animatzen, errespetatzen, berotasuna eskaintzen, etab.).

1 2 3

EKINTZETAKO EDO JARDUERA-GUNEETAKO HAUSNARKETA GIDATZEKO PUNTUAK



LORTUTAKOA Zertan egin dugu aurrera? Zer izan da lagungarria aurrera egiteko?



GELDITZEN ZAIGUNA Zer alderdi hobetu behar dira? Zer behar dugu aurrera egiteko?

GURE AURRERAPEN-MAILA FUNTSEZKO EKINTZA HONETAN

- Hasi gabe, ez da garrantzitsutzat jotzen
- Hasi gabe, baina garrantzitsutzat jotzen da
- Hasierako garapena
- Garapen ertaina
- Garapen aurreratua

3. FUNTSEZKO EKINTZA. NARRAZIO PERTSONALAK SUSPERTZEA

Jardunbide egokien deskribatzaileak

Betetzen da

1. Inoiz edo ia inoiz
2. Batzuetan edo parte batean
3. Normalean

- Adinekoen zaintzan narrazio autobiografikoei garrantzia ematen diegu.

1 2 3

- Eguneroko elkarreragin informaleko uneetan elkarrizketa eta kontakizun pertsonala sustatzen ditugu (norberaren garbitasuna, soinekoaren unea, janaria, etab.).

1 2 3

- Egunerokotasunean, ezohiko elkarreraginen uneak bilatu eta lortzen ditugu (hau da, zainketa pertsonaletako uneez gain), iraganeko, oraingo eta etorkizuneko bizipenei buruz hitz egin eta pertsonen kontakizuna estimulatu ahal izateko.

1 2 3

- Dementzia duten pertsonen adierazpena eta kontakizuna errazteko teknikak ezagutzen eta aplikatzen ditugu (denbora uztea, hitza aurkitzen laguntzea, parafraseatzea, etab.).

1 2 3

- Oroimenezko jarduerak daude, banakakoak edo taldekoak, non dementzia duten pertsonak beren oroitzapen biografikoak gogora ekartzeko eta kontatzeko aukera duten.

1 2 3

- Bizitza-liburuak, argazkiak eta objektu esanguratsuak erabiltzen ditugu oroitzapen biografikoak errazteko eta elkarrizketak izateko.

1 2 3

EKINTZETAKO EDO JARDUERA-GUNEETAKO HAUSNARKETA GIDATZEKO PUNTUAK



LORTUTAKOA Zertan egin dugu aurrera? Zer izan da lagungarria aurrera egiteko?



GELDITZEN ZAIGUNA Zer alderdi hobetu behar dira? Zer behar dugu aurrera egiteko?

GURE AURRERAPEN-MAILA FUNTSEZKO EKINTZA HONETAN

- Hasi gabe, ez da garrantzitsutzat jotzen
- Hasi gabe, baina garrantzitsutzat jotzen da
- Hasierako garapena
- Garapen ertaina
- Garapen aurreratua

4. FUNTSEZKO EKINTZA. PERTSONAREN IKUSPEGIA ULERTZEA ETA PORTAERAK INTERPRETATZEA

Jardunbide egokien deskribatzaileak

Betetzen da

1. Inoiz edo ia inoiz
2. Batzuetan edo parte batean
3. Normalean

- Dementzia duten pertsonak hitz egiten dutenean, arreta jartzen diegu, ez diegu alde batera uzten beren portaerak edo diotenak zentzurik ez duela pentsatuz. Sinesmen honetatik ihes egiten dugu: total, ez da konturatzen.

1 2 3

- Dementzia duten pertsonen lekuan jartzeko, haien emozioak hartzeko eta baliozkotzeko gai gara.

1 2 3

- Portaera zailenen eta dementzia duten pertsonen neurrigabeko erreakzioen atzean dauden motiboez arduratzen gara. Ez dugu berehala pentsatzen gaixotasunari dagozkion zentzurik gabeko portaerak direnik. Jokabideak pertsona bakoitzaren ikuspegitik ulertzen saiatzen gara, eta egoera jakin batzuen edo estali gabeko premien aurreko erreakzio emozional gisa ulertzen ditugu.

1 2 3

EKINTZETAKO EDO JARDUERA-GUNEETAKO HAUSNARKETA GIDATZEKO PUNTUAK



LORTUTAKOA Zertan egin dugu aurrera? Zer izan da lagungarria aurrera egiteko?



GELDITZEN ZAIGUNA Zer alderdi hobetu behar dira? Zer behar dugu aurrera egiteko?

GURE AURRERAPEN-MAILA FUNTSEZKO EKINTZA HONETAN

- Hasi gabe, ez da garrantzitsutzat jotzen
- Hasi gabe, baina garrantzitsutzat jotzen da
- Hasierako garapena
- Garapen ertaina
- Garapen aurreratua

5. FUNTSEZKO EKINTZA. FAMILIARI LAGUNTZEA ALDAKETAK ULERTZEN ETA NARRIADURA ONARTZEN

Jardunbide egokien deskribatzaileak

Betetzen da

1. Inoiz edo ia inoiz
2. Batzuetan edo parte batean
3. Normalean

- Familiak funtsezko laguntza gisa onartzen ditugu, eta haien esperientzia eta ezagutza balioesten ditugu senidearen zaintzan.

1 2 3

- Dementzia duten adinekoen familiek laguntza jasotzen dute beren familiako aldaketak ulertzeko eta narriadura onartzeko.

1 2 3

- Familiak erreferentziazko profesionalak edo zentroko teknikariren batek orientatzen eta babesten ditu, komunikazio positiboa mantentzeko, begirada gaitasunean zentratzeko eta tarte onak pasatzeko jarduera atseginak partekatuz.

1 2 3

EKINTZETAKO EDO JARDUERA-GUNEETAKO HAUSNARKETA GIDATZEKO PUNTUAK



LORTUTAKOA Zertan egin dugu aurrera? Zer izan da lagungarria aurrera egiteko?



GELDITZEN ZAIGUNA Zer alderdi hobetu behar dira? Zer behar dugu aurrera egiteko?

GURE AURRERAPEN-MAILA FUNTSEZKO EKINTZA HONETAN

- Hasi gabe, ez da garrantzitsutzat jotzen
- Hasi gabe, baina garrantzitsutzat jotzen da
- Hasierako garapena
- Garapen ertaina
- Garapen aurreratua

PROPOSAMENAK, EKINTZAK, NEURRIAK ZEHAZTUZ...

LORTUTAKOA mantentzeko behar duguna eta egin dezakeguna

EGITEKE dagoen horretan aurrera egiteko behar duguna eta egin dezakeguna

IRUZKINAK

matia
gogoz bizi